



Airearen kalitatea

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.
- HIZKUNTZA.
- TUTORETZA.

HELBURUAK

- Ingurumen-adierazleak aztertzeko oinarritzko ezagutzak barneratzea.
- Aire parametroaren oraingo egoera ezagutzea.

MATERIALA

- ◆ **Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. Ingurumen adierazleak 2002** argitalpena. IHOBE, 2002.



ONDOREN ESKAINTZEN dizkizuegun hamar baieztapenetatik, esan —zeuen iritzian oinarrituz eta laguntzarik gabe— zein diren egia eta zein gezurra. Gero, *Ingurumen Adierazleak* izenburuko liburuan kontsultatu ahalko duzue, zein asmatu dituzuen ikusteko.



- | | Egia / Gezurra |
|--|----------------|
| 1. 1996tik hona, airearen kalitatea nabarmenki hobetu da, SO ₂ ari (sufre dioxidoari) dagokionez. | ● ● |
| 2. NO ₂ isurpenei buruzko oraingo datuak aintzat hartuta, 2010erako zehaztutako helburuak erraz lortuko dira. | ● ● |
| 3. Atmosferaren kutsaduraren eragile nagusiak erregai fosilen kontsumoa, garraioa eta nekazaritza dira. | ● ● |
| 4. Ozonoa (O ₃) osasunari kalte egiten dion oxidatzailea da. | ● ● |
| 5. Berotegi efektua eragiten duten gasen (BEG) isurpenek erakusten duten joera ez da txarra. | ● ● |
| 6. BEG garrantzitsuenak karbono dioxidoa (CO ₂), metanoa (CH ₄) eta oxido nitrosoa (N ₂ O) dira. | ● ● |
| 7. Sektore ekonomiko guztietan energiaren aurrezpena sustatzeak ez du BEGak urritzen laguntzen. | ● ● |
| 8. Hirietako airearen kalitatea txarto egin da duela 5 urtetik hona. | ● ● |
| 9. Hirietatik hurbil dauden industriak eta eguraldia dira hiriko kutsadura atmosferikoaren errudun bakarrak. | ● ● |
| 10. Azken urteetan, NO ₂ ren kontzentrazioak bilakaera ezberdina izan du Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetakako bakoitzean. | ● ● |

Erantzunak:

1. E (27. or.), 2. G (32. or.), 3. E (30. or.), 4. E (30. or.), 5. G (56. or.), 6. E (57. or.), 7. G (57. or.), 8. G (69. or.), 9. G (69. or.), 10. E (69. or.).